

PRENTSA-OHARRA

## **Kutxabankek eta Bilboko Ganberak enpresen transmisioan lagunduko dute 'Berriz Enpresa' programaren barruan**

- **Kutxabankek lehenasunezko finantzaketa-lerro bat jarri du abian, titularren eta negozioen ardura hartu nahi duten ekintzaileen arteko transmisioa errazteko**
- **Eusko Jaurlaritzaren programa da Berriz Enpresa, merkataritza-enpresen, ostatuen eta hotel-establezimendu bideragarrien jarraipena eta hazkundera bermatzen duena, haien ingurune ekonomikoa eta enplegua sendotuz**

**Bilbao, 2020ko abenduak 22.** Bilboko Merkataritza Ganberak eta Kutxabankek finantza-lankidetzarako hitzarmen bat sinatu dute Eusko Jaurlaritzaren **'Berriz Enpresa'** negozioak eskualdatzeko zerbitzuaren esparruan. Ekimenaren helburua negozio bideragarriak itxi daitezela saihestea da, enpresak eskualdatzeko erraztasunak emanez eta negozioaren egungo titularrari zein ekintzaileei enpresa-transmisioaren prozesuan lagunduz.

Urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean lankidetzeta-hitzarmena, eta **Juan Carlos Landeta** Bilboko Ganberako idazkari nagusiak eta **Ibon Imatz** Kutxabankeko Enpresen zuzendariak sinatu dute.

Ganberak eta Kutxabankek enpresa sarea laguntzeko konpromisoari eutsi diote, enpresa bideragarrien transmisioa errazteko neurriak martxan jarritz. Horretarako, Kutxabankek **lehenasunezko finantzaketa**-lerro bat gaitu du, bi mailegu-modalitate dituen, tasa **finkoa edo aldakorra**, eta **5 edo 7 urteko** amortizazio-epea duena.

Bestalde, 'Berriz Enpresa' programaren erabiltzaile izan daitezkeen artean Akordioa zabaltzeko kanpaina bat egiteko konpromisoa hartu du Bilboko Ganberak, bere komunikazio-kanalen bidez, Kutxabankek eskainitako balio-eskaintza sustatzeko eta horretarako sarbidea erraztu dadin.

Informazio gehiago  
**Bilboko Ganbera**

[camarabilbao.com](http://camarabilbao.com) / 94 470 65 00

**Kutxabank**

[kutxabank.es](http://kutxabank.es) / 94 401 82 92